

PRENTSA OHARRA
2025eko BAIONAKO BESTETAKO AFITXA IRABAZLEA
2025eko lehiaketarako 13.500 boto baino gehiago
erregistratu dira



Julie Alendaren afitxa hautatua izan da

2025eko Bestetako afitxa lehiaketaren irabazlea Julie Alendaren proiektua da. Lau urrats handitan antolatua izan den lehiaketa prozedura baten emaitza da: egile-sortzaileen hautagaitza, Baionako Bestetako Herriko Kontseilutik kanpoko batzordeak horietako 5 hautatzea, sortzea, gero 5 afitxa proiektuak aurkeztea eta publikoaren bozetara irekitzea eta azkenik afitxa irabazlea ezagutaraztea. Irabazle den sortzailea Bestetako tradizioarekin hazi da, eta urtero, hiriari bizia ematen dion giro berezi hori aurkitzea gustatzen zaio. Baionako bizilagun eta bestetako energiaz liluraturik, Julie Alendak bestetako hiru

atal garrantzitsu nabarmendu nahi izan ditu: familia, bandak eta ohitura, boto emaileen bihotza irabazi izan duenak. «*Baionako Bestak, batez ere, nire familiarekin eta lagunekin partekatutako ahaztezinak diren oroitzapenak dira. Urtero, momentu hauetaz baliatzen naiz nire hurbilekoekin bat egiteko eta Baionako ikastetxe edo IUT-eko aurpegi ezagunekin topo egiteko. Hiri osoa giro paregabearen ospatzeko, kantatzeko eta dantzatzeko elkartzen den garaia da. Hain berezia den zirrara hori berreskuratzen dut, eta hori da nire afitxan birpasatu nahi izan dudana: Baiona osoa Besten erritmoan bizi den egun guti horiekiko dudan maitasuna» nabarmendu du sortzaileak.*

Julie Alendak proposatutako afitxaren proiektua da, beraz, 2025eko lehiaketaren lehen postuan heltzen dena, botoen %31,21ekin; hurbiletik segitzen dio Eric Califanorenak, botoen % 26rekin, eta gero, Matilda Tardieu (%17,73), Claude Davacens (%14,04) eta Gwladis Moreyrenak (%11,26).

Bozka aldiaren 7tik 21era, 13.559 pertsonen bozkatu zuten interneten bidez. Publikoaren botoek azken emaitzaren %60dute, eta gainerateko %40a Baionako Bestetako Herriko Kontseilutik kanpoko batzordearen botoen arabera da. Baionako Bestetako fetes.bayonne.fr webguneak botoa emateko eta mugikortasunean nabigatzeko egokitutakoak, 72.939 bisita izan ditu orri espezifikoan. Lehiaketa Facebook-eko orrian eta Baionako Bestetako Instagram-eko kontuan ere oso segitua da.

13.559 bozka-emaileetatik, %48,2 Pirinio Atlantikoetatik heldu dira (6.539) eta %16,4 (2.227) Baiona Hiritik. Bozka gehien ematen duten 10 herrien artean, Baionaren ondotik noski, Angelu, Miarritze, Mugerre, Tarnoze, Hiriburu eta Milafranga aipatzen dira.

Batez ere, Norbegiatik, Vietnamdik, Zelanda Berritik, Argentinatik, Kolonbiatik edota Kanadatik ere eman dute botoa internautek.

Azpmarratu behar da prozedura osoa justizia-agente baten kontrolpean egiten dela, urtero bezala.

Afitxaren sortzailea kontaktatzeko

Julie Alenda

juliealendapro@gmail.com

Baiona Hiriko prentsa harremana – 05 59 46 63 01 - presse@bayonne.fr